



Arartekoaren 2018R-1686-15 Ebazpena, 2018ko azaroaren 12koa. Horren bitartez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio neurri egokiak har ditzala, luze gabe, kexan salatutako trafikoko araudiaren urraketa zuzentzeko.

Aurrekariak

1. Aiete Pasealekuko (Donostia) X1, X2, X3 eta X4 zenbakietako jabeen komunitateak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, 2015ean, udalak ez omen zuelako jardunik bideratu Galtzaraberi inguruan eta (...) supermerkatuaren parean ibilgailu batzuek bigarren ilaran aparkatzeari lotuta.

Kexan adierazitakoari jarraituz, salatutako arau-haustea egin zuten ibilgailuek bidezirkulazioa oztopatzen zuten, eta eragozpen akustikoak eragiten zituzten. Zehazki, adierazi zen bigarren ilaran aparkatutako ibilgailuek ez zietela ateratzen uzten behar bezala aparkatutakoei, eta ez zietela igarotzen uzten autobusei eta beste ibilgailu astun batzuei; horiek, ezin zirenez pasa, auto-ilara handiak eragiten zituzten, eta klaxona jotzen zuten, ozen entzuteko moduan, eta horrek eragozpenak zekartzan.

Erreklamazioa jarri duen komunitateak azaldu zuen Donostiako Udalak 2012tik ezagutzen zuela salatutako egoera. Izan ere, urte horretan eman zion egoeraren berri, udal-bulegoetan aurkeztu zuen idazki baten bidez, eta irtenbidea emateko eskatu zion; horren ondoren, gai horren inguruko beste bi idazki helarazi zizkion udal horri (azkena 2015ean), baina arazoak bere horretan zirauen.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu eta hura aztertu zuen, eta, ondoren, Donostiako Udalari eskatu zion han mahaigaineratutako kontuen berri emateko, eta jakinarazteko zer neurri hartu behar zituen arazoa konpontzeko.

Udalak ez zion eskaerari erantzun, eta, hortaz, erakunde honek errekerimendu bat egin behar izan zion, eskatutako informazioa igor zekion, baina hari ere ez zion erantzun udalak.

Egoera ikusita, Arartekoak izapide informal bat egin zuen Alkatetzan. Horren ondorioz, mugikortasuneko zuzendariaren komunikazio bat jaso zuen; horren bidez, jakin genuen kexan azaldutako arazoa ez zegoela Alkatetzaren eskumen-eremuaren baitan, eta erakunde honen informazio-eskaera Udaltzaingolari helarazi zitzaiola, jo





baitzen haren esku zegoela inguru horretan aparkatzen zuten ibilgailuak kontrolatzea.

Arartekoak jo zuen emandako azalpenek ez zietela erantzuten kexan salatutako kontuei, eta, hortaz, beste izapide informal batzuk egin zituen Alkatetzan, eskatutako informazioa erreklamatzeko aldera.

Azken izapide horien ondorioz, mugikortasuneko zuzendariak informazio hau bidali zigun 2016ko abenduan:

“Mugikortasun eta Garraio Departamenduak, Udaltzaingoarekin hitz egin eta departamentuan ditugun baliabideen berrantolaketa kontuan hartuta, laster hedatuko ditu mugikortasun agente batzuk inguru hartara, hango trafikoa eta aparkalekuak erregulatzeraz.”

3. Arartekoak neurri horien berri eman zion kexa aurkeztu zuen komunitateari, eta galdetu zion kexa eragin zuen arazoa konpondu ote zuten horiek.

Komunitateak adierazi zigun arazoak bere horretan zirauela, egun eta ordu jakin batzuetan bereziki larria zela, hala nola lanetik irteteko orduetan, eguerdietan eta asteburu arratsaldeetan, eta ez zutela hauteman inguru horretan trafikoko araudia betetzen zela zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak indartu zirenik.

Komunitateak jakinarazi zigun bigarren ilaran aparkatutako ibilgailuek jarraitzen zutela autobusei eta beste ibilgailu astun batzuei, hala nola zabor-bilketa zerbitzuen ibilgailuei, bidea oztopatzen. Horrez gain, batzuetan, zirkulazioa eragozten jarraitzen omen zuten, eta ez zieten irteten uzten behar bezala aparkatutako ibilgailuei, eta horrek auto-ilarak eta eragozpen akustikoak omen zekartzan.

Adierazitako informazioa aintzat hartuta, eta kontuan izanda zenbat denbora igaro zen komunitateak udalari hizpide dugun arazoaren berri lehendabiziko aldiz eman zionetik (ia bost urte, une horretan) eta Arartekoak administrazio horri arazoa azaldu zionetik (hamazazpi hilabete baino gehiago), eta aintzat hartuta informazio horren arabera ez zela arazoa konpontzeko aurrerapausorik egin, erakunde honek udal horrengana jo zuen berriz ere, eta adierazi zion beharrezkoak ziren neurriak hartu behar zituela luze gabe, aipatutako eremuan zalantzan jarritako alderdiei zegokienez trafikoko araudia betetzen zela bermatzeko. Halaber, udalari adierazi genion neurri horien jarraipena egin behar zuela, eta egiaztatu behar zuela neurriak





egokiak zirela kexa eragin zuen arazoari irtenbidea emate aldera, horren arabera jarduteko.

Udalak ez zion eskaera horri erantzun. Hortaz, Arartekoak beste errekerimendu bat egin behar izan zion, baina horri ere ez dio erantzun udalak.

4. Kexa jarri duen komunitateak erakunde honengana jo du berriro, orain dela gutxi, eta jakinarazi digu arazoak bere horretan dirauela, ez dela hobekuntzarik igarri kexa izapidetu bitartean, eta ez dela hauteman inguru horretan udalak iragarritako neurriak, trafikoko araudia betetzen zela ikuskatzea eta kontrolatzea helburu zutenak, abiarazi direnik.

Halaber, komunitateak berriz ere eskatu dio udalari esku har dezala, kexan salatutako egoerari amaiera emateko.

Gogoetak

1. Trafikoko araudiak udalei esleitzen die beren titulartasuneko hiri-bideetan trafikoa antolatu, kudeatu, kontrolatu, zaindu eta diziplinatzeko eskumena, zehazki, berezko agenteen bidez. Horrez gain, bide horietan egiten diren arau-haustekak salatzeko eta horiek zigortzeko eskumena esleitzen die, beste administrazio bati berariaz esleitu ez bazaio eskumen hori —urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legearen testu bategina onetsi zuena) 7. artikulua—.

Araudi horrek arau-haustetzat hartzen ditu bere aginduen aurkako ekintzak eta ez-betetzeak, eta horrek barne hartzen du, besteak beste, bigarren ilaran nahiz zirkulaziorako erreserbatutako errepideko erreietan edo zatietan aparkatzeko debekua, eta aparkatzean zirkulazioa ez eragozteko betebeharra [Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 39.3 eta 40.1.c) artikulua, 40.2.a), 40.2.g), 74., 75. eta 76.c) eta d) artikuluei lotuta, eta azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazioko Arautegi Orokorren 91. artikuluari lotuta].

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udalen esku uzten du hiri-bideetan ibilgailuen eta pertsonen antolamenduaren ardura [25.2.g) artikulua].





Euskadiko Toki Erakunderi buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak trafikoa antolatzeari, bide-segurtasunari eta ibilgailuak aparkatzeari lotutako eskumenak esleitzen dizkie euskal udalerriei, hain zuzen ere aplikatzekoa den legeriaren esparruan [17.1.4) artikulua].

Bestalde, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak bide-segurtasuna sistemaren partetzat jotzen du, eta sistemaren printzipio orientatzaileen artean, hauek ezartzen ditu: arriskuen eta mehatxuen prebentzioa; arazoan identifikazioa; erantzunaren plangintza eta emaitzen ebaluazioa (1., 2. eta 3.1 artikulua). Legeak adierazten du, udalek bide-segurtasuna mantentzeko dituzten eskumenak ezartzean, trafikoko eta bide-segurtasuneko araudira jo behar dela (6. artikulua).

Trafikoaren zaintza eta kontrola, halaber, 2015-2020 aldirako Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Euskadiko Plan Estrategikoaren estrategietako bat da (4. estrategia) —Eusko Jaurlaritzako onetsi zuen plan hori, ekainaren 28ko 15/2012 Legearen babesean (64. art.)—. Estrategia horren helburua da, hain zuzen ere, trafiko, zirkulazio eta bide-segurtasun arloko jokaera desegokiak berrezteko jardun-ildoak eta ekimenak ezartzea.

2. Kexa jartzea eragin duen aparkaleku desegokiaren arazoa, erakunde honen ustez, aipatutako xedapenek Donostiako Udalari esleitzen dizkioten eskumeneren eremuan (udalerrian trafikoko eta bide-segurtasuneko arauak betetzen direla bermatzea) sartzen da.

Hortaz, Arartekoak uste du, udalak arlo horretan dituen eskumenek babesten dutela kexagilearen eskaera, hau da, administrazioak esku har dezala, hain zuzen ere, salatzen den trafikoko araudiaren urraketa konpontze aldera.

Aurrekarietan aipatu da udalak ez diola erakunde honi jakinarazi iragarri zituen zirkulazioaren zaintza indartzeko neurriek arazoa konpondu duten, eta ez digula adierazi kexan salatutako egoera egiaztatu duen ere.

Aitzitik, adierazi dugunez, kexa aurkeztu duen komunitateak erakunde honi emandako informazioaren arabera, iragarritako neurriek (horiek benetan hartu baldin badira, komunitate horrek ez baitu halakorik hauteman) ez dute balio izan, orain arte, salatutako ez-betetzea konpontzeko.





Informazio hori aintzat hartuta eta kexa izapidetu bitartean Donostiako Udalak izandako jarrera ikusita —horren berri eman dugu dagoeneko—, Arartekoak berriz ere esan behar du udalak luze gabe bermatu behar duela trafikoko araudia betetzen dela kexak hizpide duen inguruan.

3. Euskal herri-administrazioen legezko betebeharra da Arartekoak eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide oro lehentasunez eta premiaz ematea, Arartekoak bere funtzioak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa emateko eskaera ukatzea gure lanari oztopoak jartzea dela dio legeak. Eskatutako informazioa eskuratzea zailtzen duen jarduera oro eragozpentzat joko da legez (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Arartekoaren iritziz, Donostiako Udalak, kasu honetan, ez du behar bezala bete legeak agindutako betebeharra. Aurrekarietan jaso denez, kexa izapidetu bitartean bi errekerimendu bidali behar izan dizkio erakunde honek, eta bigarrena erantzuteke dago oraindik. Horrez gain, Arartekoak zenbait izapide informal egin behar izan ditu, udalak ez dielako erantzun helarazitako lankidetzaz-erakunde.

Erakunde honen iritziz, jokabide horrek —udalak ez du justifikatu— ez du zurrubiderik.

Beste batzuetan adierazi izan dugunez, Arartekoaren eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun osatugabeak ematea oztopo handia dira legez esleitutako eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, eta asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren interesak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —Arartekoa sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten diogu Donostiako Udalari:

GOMENDIOA

Neurri egokiak har ditzala, luze gabe, kexan salatutako egoerari, hots, bigarren ilaran aparkatzeko debekuaren eta zirkulazioa ez oztopatzeko betebeharraren ez-betetzei, amaiera emateko, baldin eta, dirudien bezala, egoera horrek bere horretan badirau eta ez bada konpondu.





Hartutako neurrien jarraipena egin dezala, kexa eragin duen arazoa konpontzeko egokiak ote diren egiaztatzeko, eta horren arabera jarduteko.

